

# BERRIGARA

34. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, maiatzak 10

**Udaberriko  
kontzertua  
igandean**



## Lehen lanaren bila

### **Autopulmans Araba S.L.**

Angiozar auzoa, 3 BERGARA

**AUTOBUSAK**

Telefona: 76 55 70

**Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza,  
bodega, ikasketa bidaia, despedida, lantegi, eskola...**

**ESKA EZAZU AURREKONTUA!!**



# MIGUEL ALTUNA eta IPINTZA institutuek, Bergarako Irakaskuntza Ertainetako eta Lanbide Heziketako institutu publikoek, gure herriari luzatzen diote eskaintza bateratu hau:

## ■ IPINTZA INSTITUTUA




- BBB 1. ETA 2. MAILA.
- IEE 1. MAILA.
- LOGSE BATXILERGOAK
  - Natur eta Osasun Zientziak 1. eta 2. maila.
  - Giza eta Gizarte Zientziak 1. eta 2. maila.

## ■ MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



- IEE 2. MAILA
  - LH II
    - Mekanika 3. maila.
    - Elektrizitatea 3. maila.
  - ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOA
    - Administrazio eta Gestio Laguntzailea.
  - LOGSE BATXILERGOAK
    - Teknologikoa 1. eta 2. maila.
    - Humanistikoa 1. eta 2. maila.
  - III. MILAKO MODULUAK
    - Enpresen Administrazioa eta Gsetioa.
    - Fabrikazio Mekanikoa.
    - Sistema Automatiko programagarriak.
    - Makina eta sistema automatizatuen mekanizatua.
- HIZKUNTZ EREDUAK: A, B eta D.

## ■ MIGUEL ALTUNA (BERRIA)



- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
  - 1. eta 2. maila.

## GURE ESKAINTZAREN EZAUGARRIAK:

### KALITATEZKO IRAKASKUNTZA

GIZA MATERIAL BALIABIDEZ  
OSATUA.

### BATERATUA

DENON LANAREKIN EGINA.

### INTEGRALA ETA INTEGRATZAILEA

PERTSONA BERE  
OSOTASUNEAN HEZI ETA  
GIZARTEAN INTEGRATZEN  
DUENA.

### EUSKALDUNA

B, D EREDUAK.

## HELBIDEAK:

### MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

IBARGARAI, 1  
☎ 76 24 91-76 38 40

### IPINTZA INSTITUTUA

BONI LASKURAIN, 19  
☎ 76 31 42-76 31 43

**AURREMATRIKULA: Maiatzaren 2tik 17ra • ORDUTEGIA: 09:00 - 14:00**

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:  
BERRIGARA Elkartea.

Zuzendaria:  
Eneko Azkarate

Erredakzioa:  
Eduardo Mendibil

Elkarrizketak:  
Eneko Azkarate

Maketazioa:  
Eneko Azkarate

Publizitatea:  
Eneko Azkarate

Harpidetzak:  
Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:  
Estepan Plazaola

Manipl. Laskurain  
Eneko Labaien

Erredakzio kontseilua:  
Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroerezibar  
Eneko Labaien

Komikiak:  
Eduardo Mendibil

Gorka Ortega & Jon Alvarez  
Eneko Labaien

Manipl. Laskurain  
Eneko Labaien

Manipl. Laskurain  
Eneko Labaien

Tirada:  
1.000 ale.

Reproduktzioa:  
BERRIGARA Elkartea (Zubillaga, Oñati)

Copyright:  
BERRIGARA

Lege gordailua:  
1985/50/91

ISSN:  
1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain  
bertzen aldizkarian adierazitako  
irizien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Euzko Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jaurkitzaileen Kulturaren  
laguntza jaso du


## Z E B E R R I D A ?

## MARKOS GABILONDO

## Komite Internazionalistak-ekoa

- Bihar aurtengo brigadak aurkeztuko dira. Nolako lana egiten da brigadetan?

- Brigadak elkartasunerako bide bat izango lirateke eta helburu nagusia beste herrialde batzuetako egoera ezagutu eta euren hartu-emanak izatea da. Aurten brigadak Mexiko, Guatemala, Kuba, El Salvador eta Nikaraguan antolatuko asmoa dugu eta herrialde horietako bizimodua eta esperientziak gertutik ezagutu nahi dira. Azken batean, konprometuz batekin eta nahiko kontzientziatuta joan behar da. Eta lana herrialde bakoitzaren arabera da: batzutan lan fisikoa egin behar izaten da eta bestetan presentzia fisikoa nahikoa izaten da. Dena den, argi eduki behar da ez direla



abenturazko oporraldiak izaten.

- Zeintzuzuzenduta daude brigadak?

- Mundu guztiari zabaldua daude, eta lehen aipatutako herrialdeetako benetako egoera ezagutzeko interesatuta dauden guztiak parte hartzeko aukera daukate. Herrialde horiei gure solidaritatea azaltzea benetan esperientzia oso aberasgarria da.

**"Mexiko, Guatemala, Kuba, El Salvador eta Nikaraguan antolatuko dira brigadak"**

## I T U R R I O N E T I K

## Aurtengo Pazkuetan hiru txozna besterik ez dira egongo Bideberrin

Maiatzaren 24tik 28ra bitartean ospatuko diren Pazkuetan hiru txozna besterik ez dira jarriko Bideberrin. Asteazkenean egitekoa zen txoznak adjudikatzeko zozketa eta Udaletxean hiru eskakizun bakarrik jaso ziren, Ipintza Institutuarena, Jarrai gazte erakundearena eta Amnistiaren Aldeko Batzordearena alegia. Aurreko urtean bezala, zortzi txozna jartzeko tokia zegoen Bideberrin baina deialdiak izan duen erantzun eskasa ikusita, ia ziurtzat eman daiteke hiru txozna besterik ez direla jarriko. Hala ere, baliteke azken momentuan eskaeraren bat aurkeztekotan, Udalak baimena ematea.

E S A N  
D U T E

"Euskal Herriko pilotuentzat Jaizkibelen irabaztea Tourra irabaztea bezalakoa da. Azken urteetan sufritu dudana kontutan hartuta, horrelako ratxa on bat etortzeko ordua bazen..."

**AITOR ZABALETA**  
Kotxe pilotua  
EL DIARIO VASCO

"Bakegintza alorrean popularrek izan duten eta oraindik duten jarrera ezaguna da: gogortasunezkoa, elkarrizketari itxia eta euskal gizartearen baitako bake-prozesuari eta adiskide-beharrari zeharo entzungor. Horrek bide poliziala azpimarratzera, espetxe-politika bortitza babestera eta euskal herritarren arteko gatazka ez sahiestera eraman ditu, ENAMari jokoak eginez"

**ENEKO OREGI**  
Hezkuntza  
Sailburuordea  
EUSKALDUNON  
EGUNKARIA

**SENTIDO Y SENSIBILIDAD**

Ostirala: 22:30.  
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.  
Igandea: 17:00, 19:00, 22:15.  
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**BLUE IN THE FACE**

Osteguna: 20:00 (Zine-kluba).



▼▼ **Antzerkia.** Elgoibarko **Ekekei** taldeak *Hiltegia* izenburuko lana eskainiko du bihar larunbata 22:30etan Zabalotegiko aretoan. Errege eta matarifeen arteko harremanak bere unerik latzenetan daude. Erregeak erronka botako die hiltegiatako nagusiei eta boterea lortzeko borroka hasiko da...

**Zinea**

▼▼ Aurtengo Oscarretan 7 izendapen eta, besteak beste, gidoi onenaren saria eskuratu zuen filme honek. **Jane Austen** idazlearen nobelan oinarriturik, *Elinor* (**Emma Thompson**), *Marianne* (**Kate Winslet**) eta *Margaret* (**Emily François**) ahizten amodioen gorabeherak azaltzen zaizkigu. Hirurek orduko ohitura sozialak eta familien arteko diferentziak gaintitu beharko dituzte... **Ang Leek** zuzenduta eta **Emma Thompsonen** gidioia.

▼▼ *Smoke* filmearen arrakasta ikusirik, **Wayne Wang** zuzendariak eta **Paul Auster** idazleak eginiko filmea. New Yorkeko Brooklyn auzoko giroa eta bertako bizilagunen arteko erlazioak azaltzen dira. **Harvey Keitel**, **Lou Reed**, **Mira Sorvino**, **Jim Jarmusch**, **Roseanne** edo **Michael J. Fox** errepartoan.

**Deiak**

▼ **1936an** jaiotakoen anaiarte-ko eguna ekainaren 1ean. Eguerdiko mezaren ondoren, argazkia aterako da Frontoian eta jarraian, 14:30etan, bazkaria Antxoni jate-txean. Izen-ematea (2.000 pezeta) maitzaren 25a baino lehen Eusebio II (76 07 92) eta Antxoni (76 20 40) tabernetan.

▼ **Erakusketa.** Etxeko jantziak maiatzaren 12ra arte Kultur Etxean. Mankomunitateak antolatu eta Ana Olga irakasleak eman duen *Etxeko jantzien joskintza* ikastaroko ikasleek eginiko lanak. Lanegunetan 6etatik 9etara eta asteburuetan 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Komite Internazionalisten** brigaden aurkezpena bihar, larunbata, 12:30etan Kultur Etxean.

**Ogia**

▼ **Igandea 12:** Konde.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 10:** Puy.
- ▼ **Larunbata 11:** Guallar.
- ▼ **Igandea 12:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 13:** Estella.
- ▼ **Asteartea 14:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 15:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 16:** Puy/Español.

**Gaspar**

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

**GURIA****Taberna**

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

# Udaberriko kontzertua

## Musika Eskolako taldeak igandean frontoian


### Musika Eskolako

300 ikasle inguruk hartuko dute parte igandeko Udaberriko Kontzertuan. Aurtengoa 8. edizioa izango da eta, nobedade bezala, kontzertua berriz ere Frontoian eskeiniko da, hasierako edizioetan bezala. Azken bi urtetan Espoloian egin zen Udal Pilotalekuan egin beharreko berrikuntza lanak zirela eta.

Igandean, 11:30etan, Musika Eskolako trikitilariak kalejira egingo dute eta ondoren, 12etan, kontzertua hasiko da Frontoian. Orkestra Sinfonikoak, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Johan De Meij konpositorearen "Lago Ness" lana eskeiniko du.

Ondoren, Haurren abesbatzaren txanda izango da. Cristina Larrañagak zuzentzen duen taldeak "Aldapeko" (Alain Perpetue), "Heigh Ho" (F. Churchill, letra: L. Dorey) eta "Bibbidi-bobbidi-boo" (J. Livingston, letra: David Hoffman) lanak abestuko ditu eta gatzetxoekin abesbatzarekin batera Mikel Markiegi pianujolea arituko da.

Jarraian, Akordeoi Orkestak "Angeline" (Max



Orkestra Sinfonikoak De Meij-en "Lago Ness" lana eskeiniko du.

Francy) eta "Kinder sinfonie" (J. Haydn) joko ditu eta ondoren, Haurren abesbatza eta Hizkuntza musikaleko ikasleekin batera, "Oliver" filmetik 3 pieza eskeiniko dira: "Jana bai, jana", "Non dago maitasuna?" eta "Ongietorri". Musika Lyonel Barts konpositorearena da eta transkripzioa Maria Jesus Ugalde Akordeoi Orkestako zuzendariak egin du. Bakarlari modura Julen Iñarra arituko da.

Azkenik, Alberto Laskurainen Gazteen Bandak "Pocahontas" (Alan Men-

ken) joko du eta kontzertuari amaiera emateko talde guztiek Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatutako "Musika Eskolako martxa" eskeiniko dute.

### Omenaldirik ez

Musika Eskolak, aurreko edizioetan, eskolaren aldeko lan aipagarria egin duten hainbat pertsona omendu izan ditu baina aurten ez da inolako omenaldirik izango. Urtean zehar taldeek egiten duten lana ezagutzera

emateko antolatzen da Udaberriko Kontzertua. Alberto Laskurain Gazteen Bandako zuzendariaren hitzetan, "taldeek elkarrekin jotzeko egun ezin hobea da eta horrez gain egun on bat igarotzeko aukera daukagu. Kontzertuaren ostean, bazkari herrikoia izango da Espoloian eta jarraian Ibaiak taldearekin erromeria".

Kontzerturako sarrerak 300 pezetatan jarriko dira salgai igande goizean bertan, Udal Pilotalekuko tailan.

**PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

**ARDATZA**

*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behe ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

## Eskola garraio publikoa guztiontzat

Aranzadi eta Mariaren Lagundiako ikastoletako zuzendaritzek jakin dutenez, orain arte Bergarako ikastetxe guztiek amankomunean erabili izan duten eskola garraioa eskusibizatzeko asmoa agertu du San Martin Ikastetxe publikoak.

Honen aurrean honako hau adierazi nahi diogu Bergarako herriari eta bereziki bi ikastetxeetako gurasoei.

1.- Garraio zerbitzu amankomuna Bergarako Udalaren ekimenez sortu zela duela 20 bat urte, gurasoentzat prezio egokiago batzuk lortu nahian eta ikaslearen arteko diskriminazioak baztertu asmoz.

2.- Garraio alorraz gain, beste hainbat arlotan ere politika bateratuak bultzatu direla, kirolean adibidez, eta honek posible egin duela Bergarako ikasleek gune amankomunak izan ahal izatea hainbat ekintzatan. Kirol mailakoaz ari bagara, ez da arraroa talde mixtoak aurkitzea, esaterako "Mariaren Lagundia-San Martin", edo ikastetxe bateko ikasleek beste ikastetxe bateko taldeetan jokatzea. Elementalekoak Aranzadi Ikastolako taldeetan beste adibide batez. Ludofeka, dantza eskolak eta beste hainbat ekintza, jokabide horren beste adierazle batzuk dira.

3.- Penagarria litzateke hogeitazera era honetako politikak bultzatu ondoren ikastetxe baten erabakiz orain arte izandako ondasun hau puskatzea, jokamode bat, politika orokor bat jartzen baita arriskuan eta ez atal bakar bat.

BERGARAKO ARANZADI ETA MARIAREN  
LAGUNDIA IKASTOLETAKO ZUZENDARITZAK

## Yoga ikastaroei buruz

Berrigararen 230. zenbakian, yogari buruzko erreportaia interesgarria irakurtzeko aukera izan nuen. Bertan Arantxa Odriozolari egindako elkarrizketa zetorren eta Udaleko gizarte laguntzaileak, besteak beste, zera aipatzen zuen: "Badira yoga egin nahi duten gizonezkoak ere, eta guk ere jaso ditugu eskariak, baina gure zeregina ez da herritar guztientzako ikastaroak antolatzea, arazoren bat edo behar bat dutenentzat antolatzea baizik".

Ez nago ados Odriozolak esandakoekin eta, nire ustez, Udalaren zeregina herritar guztiei eskaintza bera egitea izango litzateke, yoga egitea emakume zein gizonen behar bat izan daitekeelako. Ez dakit ze motatako arazoak izango dituzten ikastaro horretan parte hartzen dutenek baina, dakidanez, yoga guztiontzat ona izan daiteke.

Bestalde, Odriozolaren hitzetan, "emakumea marjinalizatuz jotzen denez, eztabaidagarria da, yoga ikastaroa eskaintzen zaio". Ikastaroa antolatzean argi dago gizonezkoak izan garela marjinalatuta. Beraz, Odriozolaren arabera, eskubide osoa daukagu beste ikastaro bat aldarrikatzeko.

AITOR M. (NAN: 72.786.572)

## Txoznak

Jaixetarako gero eta gutxiago gertatzen da eta Bideberrin jarriko diren txoznei buruz hitz batzuk luzatu nahi nituzke.

Hasteko esan nahi dut ondo iruditzen zaidala jaixetan Bideberrin txoznak jartzea, tarbernetan egoten den giroaz gain, beste festa gune bat delako eta tabernak ixten dituztenean nora joan egoten delako. Baina esan nahi nuke, musika piska bat zainduko balitz hobe egongo litzatekeela. Esate baterako, ordu batetik aurrera musika baxuagoa eta zaratsuaoren ordeztasunagoa jartzea, bai bertan daudenentzat eta baita lotan daudenentzat, eskertzekoa izango litzatekeela uste dut.

M. AGIRRE

## Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

**Anje Duhalde**

Jardun Elkarteak Anje Duhalde kantariaren emanaldia iragarri du datorren ostiralerako, maiatzak 17, 22:30etan Gartzela Zaharrean. Jardunek, hilerok, Gartzelan ekitaldiak antolatzeke asmoa dauka.

**Zozketa**

Labegarrietako Jai Batzordeak antolatutako zozketan 9.139 zenbakia izan da saritua. Boletoa jabeak Lasa jatetxean 4 pertsonentzako afaria eskuratuko du.

**Lanbide hastapena**

Mankomunitateak eskola utzi duten gazteei zuzendutako *Lanbide hastapena* programan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 17a baino lehen eman beharko dute izena. Izen-ematea eta argibideak 77 91 65 telefonoan, Udaletxean.



Asteazkeneko eztabaida foroan Juan Mari Juaristi, Jesus Mari Garitano eta Sabin Intxaurrea izan ziren.

**Elkarrik dirua jaso eta informazioa zabaltzeko ekitaldiak antolatu ditu**

Begarako Elkarrik *Eskua luzatu* izeneko kanpaina aurkeztu zuen asteazkenean prentsaurrean. Elkarrikoek adierazi zuten, "*pake prozesuak bere kostoak dauzka eta Elkarrik, bere sorreratik, 150 milioi gastatu ditu*". Honen aurrean, *Eskua luzatu* kanpainak bi helburu ditu: batetik herritarrek kosto horien kontzientzia hartzea eta bestetik gaurko egoerari buruz informazioa ematea.

Dirua jasotzeko Elkarrik bere produktuak jarriko ditu salgai hurrengo

larunbatean, hilak 18, Plazan. Eta bestalde, Elkarrik bi ekitaldi antolatu ditu. Asteartean bideo emanaldia iragarri da Miguel Altuna Institutu zaharrean 19:30etan. Bertan HB, EA, EAJ eta Egiguneren pake proposamenak azalduko dira. Ostegunean, berriz, ordu eta toki berean, Gotzone Zestorain Elkarriko ki-deak "*Pake prozesu bat eraiki*" izenburuko hitzaldia emango du.

Era berean, Elkarrikoek martxoan hasi ziren eztabaida foroan lehen

balorazioa egin zuten. Hilean behin herriko 25-30 lagun biltzen dira eta asteazkenean Sabin Intxaurreak (EA), Juan Mari Juaristik (EAJ) eta Jesus Mari Garitanok (HB) euren alderdien pake proposamenak azaldu zituzkien. Prentsaurrean azaldu zenez PSE-EEkoak ere gonbidatuta zeuden baina ez zuten inor bialdu.

Elkarriren kurtsoari amaiera emateko ekainaren 22an manifestazio bat izango da Bilbon "*Euskal bake prozesu justu baten alde*" lemapean.

**HILDAKOAK**

**Eladio Lafuente Etxeberria**

Maiatzak 4, 85 urte

**Pedro Osoro Olabarria**

Maiatzak 6, 82 urte

**JAIOTAKOAK**

**Olatz Mateos Arreseigor**

Apirilak 27

**Miren Larrañaga Aspiazu**

Maiatzak 5



**ETXEPARE-BILINTX**

**LIBURUDENDA**

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

## Raftinga Pirinioetan Pol-Polen eskutik

Maiatzaren 17tik 19ko astebukaerarako raftinga antolatu du Pol-Pol Mendizale Taldeak. Bonaiguako Noguera Pallaresako (Vaqueira Beret) erreka ur bizieta (14 kilometroko jeitsiera) aritzeko aukera izango da 13.000 pzta. ren truke. Prezioaren barruan autobusa, alkilerrak, monitorea, ostiraleko eta larunbateko alojamendua, eta larunbateko eta igandeko gosaria sartzen dira. Informazioa eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoetan astelehenetik ostegunera.

## Aritz Egidazuri ongi-etorria

Estatuko kartzeletan 4 urte eman dituen Aritz Egidazu bergararrari ongi-etorria eskeini zitzaion joan zen ostiralean Plazan. Ongi-etorri ekitaldian dantzariak, txalapartariak eta bertsolariak hartu zuten parte eta Aritzek presoen sasideengandik eta beste hainbat talderengandik opariak jaso zituen.

## Xipizaro ludoteka

Xipizaroren udaleku irekietan parte hartu nahi duten gazteok izen-ematea maiatzaren 24a baino lehen egin beharko dute, Seminarioko lokalean 16:30etatik 19:30etara. Larunbatetan, 10etatik ordu batera egongo da zabalik. Argibideak 76 23 76 telefonoan.

## Jubilatuaren irteera

Maiatzaren 15ean Legazpira joateko irteera antolatu da Jubilatuetan. Legazpin mendi irteera eta bazkaria iragarri dira. Argibideak 76 21 40 telefonoan.



95eko balantzea eta aurtengo urterako asmoak azaldu zituzten Jarduneko taldeek.

# Urteko balantzea egin zuen Jardunek Batzar Orokorrean

## *Euskara elkartearen Konfederazioan sartuko da Jardun*

Jardun Elkarteak urteko Batzar Orokorra egin zuen asteartean Masterrekako lokalean. Bertan, iaz burutu ziren ekintzen balantzea eta aurtengo urterako aurrikusitako asmoen berri eman zuten Komunikabide, Kultura, Gazte, Emakume eta Formazio taldeetako ordezkariak. 1995eko diru balantzea eta 96rako aurrekontuen berri ere eman zen.

Era berean Andoni Etxeberria Jarduneko presidentek Jardunek Gipuzkoako Euskara Elkartearen Federazioan eta Euskal Herriko Euskara Elkartearen Konfederazioan (Topagunean) sartzeko asmoa zuela aurreratu zuen.

Batzarrean bildutako bazkideek oniritzia eman zioten proposamenari.

Federazioa eta Konfederazioaren helburu nagusia euskara elkartearen arteko harremanak sakondu, zabaldu eta finkatzea litzateke. Horretarako, esperientziak eta ideiak trukatu eta aholkularitza eta kontsulta zerbitzuak eskeintzeko asmoa dago. Federazioaren egoitza Tolosan egongo da eta Topagunearena, berriz, Durangon. Jardunek 500 bazkideetik gora dituenez (578 bazkide hain zuzen ere), Federazioan 3 ordezkari izatea dagozkio. Oraindik ez da erabaki zeintzuk izango diren Jarduneko ordezkariak. Azkenik, euskara elkartei buruzko jardunaldiak antolatzeko asmoa ere badagoela aurreratu zen asteartean egin zen Batzar orokorrean.

**A  
R  
R  
A  
N  
O**

**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA

**GOXO-TOKI**

D. Italo, 3 - Tlf. 761235  
Mabiolategi, 34 - Tlf. 762337  
BERGARA

**ONENA**

**TINTATEGIA**

Barrenkale, 29 BERGARA



# Bergarako dendetan herriko artisten lanak aurten ere

*Eskaparateak kuadro eta eskulturaz apainduko dira*


Iaz egin zuten moduan, Bedelkar eta Beart Bergarako dendari eta artisten elkarteak berriro elkartu dira herriko dendetan artisten lanak ikusgai jartzeko. Beraz, bihartik aurrera eta maiatzaren 28ra bitartean, Bedelkarreko 105 dendatan Bearteko kideen margoak, zeramika lanak edo eskulturak ikusi ahal izango dira.

Gutzira, herriko 30 artista inguruk hartuko dute parte aipatutako erakusketan. Datozen egunetan Bedelkarreko komertzioetan erosketak egiten dituztenei boletoak banatuko zaizkie eta datorren maiatzaren 21ean zozketa egingo da. Irabazleak erakutsitako arte lanetatik nahi duena eskuratuko du eta, bestalde, gainontzeko artelanak

erosteko aukera izango dute interesatuek.

Esan bezala, Bedelkarrek iaz jarri zuen martxan erakusketa honen ideia. Bedelkarreko ordezkarien hitzetan, *"San Pancraccio gure patriaren egunerako zerbait antolatzeari pentsatu genuen eta, hainbat aukera aztertu ondoren, Bearteko artistekin batera erakusketa hau egiteko ideia sortu zen. Esperientzia polita izan zenez berriro egitea pentsatu genuen"*.

Iaz Aloña Alvarez izan zen zozketaren irabazlea eta horrez aparte 3 koadro saldu ziren. Bestalde, San Pancraccio beren patriaren eguna ospatzeko Bedelkarreko kideek afaria egingo dute bihar, larunbatean.



## Labegarietako Zentral Hidroelektrikoa

Bergarako Industrialdeak Labegarietako Zentral Hidroelektrikoa erosi berri du. Industrialdeak 60 milioi inguru ordaindu dizkio Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxari lehengo jabeari. Beraz, Bergarako Udalak, Kutxak eta Lucio Arregik zentralaren ardura hartuko dute industrialdea urbanizatu bitartean eta bota arte errekurtsio elektrikoak Iberdrolari salduko zaizkio. Zentrala erosterakoan Kutxak izan du partizipaziorik haundiena, %47koa. Kutxak 28 milioi inguru ordaindu ditu, Udalak 20 milioi inguru (%33a) eta Lucio Arregik 12 milioi (%19,8a). Zentral hidroelektrikoa eta ondoko kanala, arau subsidiarioetan, ordenazioz kanpo geratzen zirenez, bota egingo dute laister.

## Arrantza lehiaketa

Oilagorako arrantza sailak antolatuta arrantza txapelketa jokatu da igandean goizeko 8etan Angiozarko errekan. Larunbatean, berriz, arrantzarako arteen azalpena emango du Felipe De Benito adituak Angiozarko errekan goizeko 9etatik aurrera. Jarraian, Fede Sabras errioxarrak ere erakustaldia eskeiniko du.



Berez dotoreak badira, artelanez apainduko dituzte dendariak eskaparateak.

**KONDE**

PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRIKOAK, KALKULADORAK...


Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

**DEBA GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

# ARANZADI IKASTOLA



BATXILERGOA  
UBI

San Martin plaza, 4  
Matrikula orduak: 08:30-13:00 eta 15:00-18:00  
Telefonoak: 76 26 76 - 76 56 76

## BERGARAKO IKASTOLA KONTZERTATUAK


Irakaskuntza Ertainetako aukera anitza eta  
urteetako esperientzia

**PLAZA MUGATUAK**

## MARIAREN LAGUNDIA

IEE 1. eta 2. MAILAK  
LH II SANITARIO ADARRA

Espaloia, 1.  
Matrikula orduak: 09:30-13:00 eta 16:30-17:30  
Telefonoak: 76 25 40



## Osasuna

### Tabakoa

#### - Zein neurritan eragiten digu tabakoak?

- Argi dago tabakoak gure gorputzari kalte egiten diola eta, batez ere, hiru eratako gaisotasunak sortzen dituela: bihotzeko gaisotasunak, biriketakoak (bronkitis kronikoa esaten dena) eta bestalde biriketako minbizia. Zainetan ere ondorioak izan ditzakegu. Tabakoaren ondorioz zainak itxi egiten dira eta odola ez da ondo iristen hanketara. Horrela, erretzaileek deskantsuak hartu behar izaten dituzte pasiatzen dabilizanean.


#### - Zein adinetan agertzen dira sintoma horiek?

- Tabakoak luzarora pasatzen du faktura. Jendeak erre egiten du eta urteak pasa eta gero agertzen dira gaisotasun horiek. Horrez aparte, bizitza kalitatea jaitsiaz joaten da: usaimena, janariaren zaporea lortzeko zailtasunak izaten dira, kirol maila jaitsi egiten da...

#### - Zenbateraino dira kaltetuak erretzaile pasiboak?

- Zigarro batean bi ke korrante daude. Batetik, pertsona batek erre ondoren botatzen duen kea eta bestetik, zigarroak botatzen duena. Azken hau da kaltegarriena. Erretzaile pasibo batek, 15-20 zigarro erretzen dituen pertsona baten ondoan egonda, egunean bi zigarro erretzen ditu. Bizitza kalitateari eragiten dio.

### "Erretzaileak botatzen duen kea baino kaltegarriagoa da zigarroak botatzen duena"



Erretzaile pasiboak ere kaltetuak izaten dira tabakoarekin. ARTXIBOA.



**ANDONI BUENO**  
(Medikua)

#### - Tabakoa uzteko metodoak nola baloratzen dituzu?

- Nire ustez, tabakoa uzteko, lehenengo-lehenengo borondatea behar da eta gogo hori nonbaiten aurkitu behar da. Hori gabe, dauden sistemak, lagungarriak besterik ez

dira. Erretzaileak nikotinarekiko dependentzia fisikoa eta psikikoa dauka eta abinentzia garaia igarotzeko txikleak eta partxeak oso lagungarriak dira.

Beste metodo bat terapia konduktista izango litzateke: asko erretzen hasi eta apurka-apurka gutxituz joatea. Bestalde, akupuntura eta beste metodo asko ere badaude. Batez ere dependentzia psikikoa, autokontrola lantzen da eta guk autokontrola psikoterapia baten bidez lantzen dugu. Jendeari erretzeko gogo sortzen zaion egoeretan zer egin erakusten zaio.

#### - Zein pauso eman behar dira?

- Pertsona elkarrizketatu, bere gogoia eta motibazioa baloratu eta horren arabera txarla bat izan tabakoaren eragin txarrak aztertzeko. Ondoren, testa pasa eta gero, saiatzen gara berak egin behar duen terapia hori erakusten. Apuntatu behar du egunero zergatik erretzen duen zigarro bakoitza, duen dependentziaz jabetu behar du. Eta berak aurkitu behar du horren ordez zer egin, zigarroaren hutsune hori nola bete.

Azken batean, ez da inoiz berandu tabakoa uzteko, eta tabakoa uztearen efekoak berehala ikusten dira.

**Deco-Textil**  
**ZANGITU**

Etixerako lentzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

**Masterreka 24**

**Nepal, India eta Hego  
Amerikako jantziak**

Masterreka, 24 BERGARA

**YAZKI**  
**UME GAZTE**

**Neska eta mutil**

Irizar, 3  
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8  
☎ 76 54 73

# Lanean ala ikasten?

## Ez bata ez bestea, lan bila

**Ikasketak bukatu ostean, lan bila hasi, jo alde batera eta jo bestera ibili, baina ateak itxita izaten dira. Sekula lanik egin barekoa izanez gero, esperientzia izatea eskatzen da. Baina, sekula lanik egin ezean nola izan esperientzia? Erantzun bareko katea da; lehenengo lana bilatzeko izaten den traba nagusia.**

Zein ikasketa egin aukeratu, ikasketak bukatu eta... ah zer nolako buruko mina! Orain zer egin behar ote dut? Nola hasi lan bila? Nora jo?

Saso batean, aspaldi, nahikoa zen lanerako gogo izatea, gaur egun, ostera, gogoia eta ikasketak izan arren, loteria da lana topatzea.


Nork ez du ezagutzen oposizioz oposizio dabilen laguna, lanean hasi arren lanik ez dagoelako egun gutxitara atzera etxera bidali dutena, Aldi Baterako Enpresan (ABE) izena emana duena, INEMeko deiazen zain dagoena edo ikastaroz ikastaro dabilena?

### Denean izena emanda

Olatz Manzanedok 95ean, 22 urterekin, bukatu du Zuzendaritza Idazkaritza. Harrezkero lan bila dabil. Hilabete honetan errolda egiten ari da, baina aurretik ez du lanerako aukera handirik izan. *"Inguru honetako enpresa guztietara joan naiz Curriculumak eramatera, egunkarietan*

*ateratzen diren iragarki guztietara idazten dut, eta Aldi Baterako Enpresa (ABE) askotan nago izena emanda".* Hasieran Curriculumak eramatera joaten zenean gaizki pasatzen zuen, latsa sentitzen zuen; orain, berriz, ohitu egin dela dio: *"Obitu egin behar, beharko!"* Olatzek ez daki ABETan zein baldintzatan edo zeren truke dagoen izena

emanda. *"Uste dut lana aurkitzen badidate soldataren portzentaia batekin ABekoak geratzen direla..., ez nago ziur. Kontua lan egitea da: lehenbailehen hasi nahi dut lanean, oraingoz, egindako ikasketekin zetikusua duten lanetara aurkezten naiz. Hizkuntzak praktikatzeko eta jendearekin tratua izateko aukera emango lida-*



Langabetuek nahiz langileek etengabe ikasten jarraitu behar dute.

## LAZKANO

### Oinetakoak

Barrenkale, 15  
☎ 76 25 03

### ESKUEK BIDEZKO SENDAGILEA

Reiki maisua - Naturista -

Era guztietako gaisotasunen tratamendua:  
gaisotasun kronikoak, nerbioetakoak,  
emozionalak, degeneratiboak...

KONTSULTA: Aranerreka, 24 1. ☎ 76 56 66



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

keen lana topatzea gustatuko litzaidake, baina ezer topatzen ez badut, ikusiko dut zer egin".


### Etengabe ikasten

Ikasketak bukatuta izan arren, Olatz ez dago etxean besoak gurutzatuta: "karneta atera dut, frantsesa eta inglesa ikasten ari naiz, eta Bilbon nominei eta Gizarte Segurantzaren buruzko ikastaro bat egiten dibardut. Horrez gain, etxean mekanografian eta takigrafian abiadura eta praktika ez galtzeko jarduten dut".

Olatzen iritziz, lanerako aukera gehiago izan dadin praktikak egitea beharrezkoa da. "Praktikak egiten bi hilabetez banketxe batean ibilia naiz, baina besterik ez. Nire ustez, praktikak denok egin beharko genituzke, ikasketak egin bitartean edo ikasketak bukatu ostean. Gainera, eraginkorragoak izateko eskolatik jarraipena egitea komeniko litzateke".

### Praktikak egin beharra

Martin Garmendiak al-baitarritza ikasketak bukatu ostean ez du lanerako aukerarik izan. Bere ametsa Alaskan animalia basatiak zaindu eta sendatzea, egun guztian mendian eurekin ibiltzea, da. Karrantzan animalia basatiak sendatu eta berriz euren ingurunean sartzeko



Enpresak, gremioak, sindikatuak, Udaletxea, kolegio profesionalak..., denetara joan behar da lana

etxe bat irekitzekoak dira, baina zenbait arazo tarteko, atzeratzen ari da. Hala ere, orain dela urte t'erditik irekiko duten esperantzaz hileroko deitzen du informazioa eskatzeko. "Zabaltzen dutenean praktikak egiteko aukera izatea espero dut. Garrantzitsuena praktikak egitea da, esperientziarik ez baduzu inon ez zaituztelako hartzen. Lanetan hasteko leku guztietan esperientzia eskatzen dizute, aukerarik izan ez

baduzu, berriz, zer egin? Ba, horixe, nonbait praktikak egin".

### Edozein lanerarako prest

Ametsak amets, Martin edozertan lan egiteko prest dago: "barakin lana ere gustora egingo nuke. Uda batean igerilekuan lan eginda nago, Katean ere bai, eta inguruko ABE guztietan izena emanda nago, edo-

zertan lan egiteko". Martinek badaki etxean ezer egin barik ez dela lanik etorriko eta egunean 6 ordu ematen ditu ikastaroetan: "euskara eta inglesa ikasten ari naiz. Osakidetzako administratiboko oposizioetara aurkezteko asmoa dut eta prestatzeko ikastaro batean nabil".

Aurretik, besteak beste, kontabilitate, informatika eta farmazia laguntzaile ikastaroak eginak ditu.

**"Lan eske joandakoan esperientzia eskatzen da. Nola izan sekula inork aukerarik eman ezean?"**

# MUJIKA

## Jantxidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



# LIZAR

## ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

# AGIRREBEÑA

## oinetakoak arropa denda lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

**ERIKA MENDIBIL****"Langabeziatik irtetzeko onena geldirik ez egotea da"**

Lana topatzea lana da eta oso lan gogorra, ezezkoak jasotakoan eta frustatuta sentitzen zarenean indar handia izan behar delako. Baina, lan bila gabiltzanean jasotzen dugun erretxazoa ez da geure buruari egiten diotena.

Kontutan hartu behar da produktu bat saltzen ari garela: gure ezagutzak, eta esperientzia, eta sekula ez da pentsatu behar geure burua saltzen ari garenik.

Oso garrantzitsua da ondorengo hau buruan izatea: beste batentzako 8 orduz lan egiteko prest banago, niretzako lana topatzeko 8 ordu sartzeko edo dedikatzeke gauza naiz. Lana bilatzea lana da.

Lana topatzeko jarraitu beharreko urratsak:

**1** Egin zeure buruaren balantzea: nolakoa zaren eta zer nahi duzun, hau da, argitu zertarako gai zaren eta zer nahi duzun. Jakin ezazu dituzun alde positiboak zeintzuk diren eta horiek ahalik eta gehien erabiliz zertan lagun zaitzaketen. Era berean, onartu dituzun akats edo hutsak, hobetu ahal izateko.

**2** Egin zeure bidea: lana bilatzeko, ezagutzak, trebeziak eta jarrerak guk nahi dugun lanpostuen arabera egokitu beharko



ditugu. Gure puntu fuertek eta ahuleziak zeintzuk diren ezagutzen dugunean akatsak zuzentzeko egin behar duguna zer den jakintzu dugu.

**3** Informatu zeintzuk diren merkatuak eskaintzen dituen lanpostu eta lanbide berriak, eskari gehien dituztenak edo erakusten dituen joerak. Informazio hori norberak bilatu behar du zuzenean, enpresaz enpresa joan eta zeren beharra duten galdetuz; INEMeko bulegoetan galdetuz, egin diren kontratu guztiak bertan erregistratzen direlako. Egunkarietan begiratu; gremioetan galdetu; sindikatuetan: emleguaz informazio asko izaten dute; Kolegio profesionaletan; administrazio publikoetako aldizkari ofizialeetan; eta jo lagunaren sarean, izan ere, horiek baitira gehien laguntzen dutenak: lagunaren laguna, ahizparen lagunaren lehengusua, e.a.

**4** Egokitu: gaur egungo lanbideek eta langileek era guztietako aldaketak izaten dituzte. Aldaketa garrantzitsu hauek teknologia berriek zein gizartearen aldaketek dakartzate. Hortaz, lana aurkitzeko erraztasun gehiago izango duzu dituzun kualifikazio eta esperientziak merkatuaren eskarira egokituz gero. Ez ezazu eskaini eskatzen ez den esperientziarik eta kualifikaziorik. Bestalde, errazago topatuko dute lana bizitokiz, ordutegiz, lanbidez zein lantokiz aldatzeko prest

daudenek; hau da, uneoro ikasteko prest daudenek.

**5** Merkatuak momentu bakoitzean eskatzen duen ritmoan eta mailan formatu eta esperientzia jaso, eguneratu zure ezagutzak eta trebezia profesionalak. Ikasketak bukatu eta horrekin konformatzen denak jai du; gaur egun ikasteari sekula ezin zaio laga; lagaz gero, zure erreak egin du. Etengabeko erreziklajea eta formazioa ezinbestekoa da. Hau langabezia zein lanean ari direnek, denek, izan behar dute kontutan.

**6** Antolatu eta jarraitu metodo bat: erabili agenda bat, eta bertan idatzi lana topatzeko helburuak, helburu horiek lortzeko egin beharreko guztiak: Lehentasunak zehaztea, programatzea, planifikatzea...

**ERIKA MENDIBIL**  
LAN TEKIKARIA DA

**Behea jota, baina ilusioz**

Lanpostu horretan ez ezik, beste zenbaitetan ere izena eman izan du, baina ez du zortetik izan. *"Gainera lanpostu batorako ehundaka lagun aurkezten dira eta etsita geratzen zara"*.

Orain dela gutxi 'Lana bilatzeko teknikak' ikastaroan parte hartu zuen, baina bere ustez han esandakoek ez dute askotarako balio izan: *"norberaren kontura zerbait jarri ahal izateko diru asko behar da: kredituak, laguntzak... Nire ustez asko arriskatzea da"*.

Halere, eta askotan behea jota egon arren, ilusio eta asmo ugari du; lan barik egotea baino zerbait egitea hobe delakoan beka eskaera bat egina du. *"Doktoradutza egiteko beka eskaria da, 'Dermatologia Euskal Herrian, mapa epidemiologikoa' beka. Erantzumanda emango didate"*.

**Norberaren negozioa**

Eva eta Ana Arevalillo ahiztek abendu bukaeran zabaldu zuten Renteri tintategia. *"Aurretik lanean ibili arren, inolako kontrato barik eta bala nola genbiltzan. Amamak tintategia zeukan, baina lagatzeko asmoa zuen. Familiari lau belaunaldik lan egin dutenez, geuk jartzea pentsatu genuen"*. Horretarako udalak eskaintzen duen arrisku soldata proiektuari heldu zioten. *"94ko urrian hasi ginen: merkatuaren azterketa egin, proiektuak etorkizunik ba ote zuen ikusi, espektatibak eta prebisioak egin, kreditu"*

eta laguntzei buruzko informazioa jaso... 95eko martxoan bukatu genuen proiektua. Eraitza ona atera zen, eta animatu egin ginen. Eraitza ona izan ez balitz ez ginatekeen hemen egongo".

doi, txamarrak, eta oñar, etxean garbitzeko zailak diren enkajezko mantelak, e.a., eta orain-

goz oso pozik daude emandako urratsaz. "Gorabeherak izan ditugu, otsailean esate baterako,

ez dugu lan gehiegi izan, baina apirilean zoratuta ibili gara: ezkontzak, jaunartzeak...".

**Familiaren laguntza**

Arevalillo ahiztak jabetzen ziren horrelako inbertsioak eta urratsa emateak esan nahi zuen arriskuaz, baina familiak eman dien laguntzak eta babesak animatu egin zituen. "Era guztietako laguntza eman digute: ekonomikoa, morala... Erakuslerik onenak ere etxean ditugu: tia Julik eta amamak plantxatzen erakutsi diguie, tio Jose Marik makinan inguruko gauzak... laguntza handia da!" Denetik garbitzen dute: alfonbra, edre-



Inork lana eman beharrean, bakoitzak lanpostua sortzeko aukera ere badu.

# ETEO

**ADMINISTRAZIO + INFORMATIKA + MARKETING**

**1966 - 1997 KURTZOAN ESKAINTZEN DIREN IKASKETAK**

**IKASKETA ERTAINAK**

- GOI MAILAKO BATXILERGOA "Administrazioa eta gestioa (IEE)".
- LANBIDE HEZIKETA:
  - Administrazioa, Marketing eta Informatika arloak.
  - Hirugarren Mailako Moduluak.

**UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK**

- ENPRESA ZIENTZIAK:
  - Finantzak eta Kontabilitatea.
  - Marketing eta Komertzial Arloa.
  - Informatika.

**IKASKETA HAUEK BUKATU ONDOREN, UNIBERTSITATE MAILAKO "ENPRESA ZIENTZIENTAKO IKASKETAK" BERTAN JARRAITZEKO AUKERA DAGO (16-22 URTE).**

Informazio gehiago: ETEO, Larraña, 33. Telefonoa: 78 13 11. OÑATI.  
Aurre-inskripzio epeak: IKASKETA ERTAINAK: Maiatzaren 2tik 17ra. • ENPRESA ZIENTZIAK: Maiatzaren 27tik ekainaren 28ra.

## Zerga aitorpena egiteko garaia dela eta, Haziendari iruzurrik egiten ote zaio?



**Ana Pardo**

36 urte, langilea

Ahal duenak egiten duela uste dut. Egiten diren kontrol guztiak zenbaitzuk errez gaintzen dituzte behintzat...



**Maria Dolores Leunda**

49 urte, langilea

Bai, asko gainera. Guri, langileoi, nomen bidez, kontrol zehatzagoa egiten digute baina beste askori ez diete kasorik egiten edo ez dakit zer pasatzen den.



**Jesus Maria Matilla**

26 urte, langabetua


Nik uste dut jendeak, interesengatik, gauzaren bat ezkutatu dezakeela... Baina gero eta gutxiago egiten da eta azkenean konpunduko dela uste dut.



**Pablo Pascual**

61 urte, jubilatua

Askok ez dute deklaratzeko duten guztia deklaritzen. Baina uste dut tranpa txiki horiek egitea nahiko normala dela.



**Celestino Vicente**

70 urte, jubilatua

Nire ustez langileek ez dute horrelakorik egiten baina aberatsek egiten dute bai.



**Arantxa Elorza**

42 urte, langilea

Hemen kontrolatuta gaudenak gure gara baina beste denak... Fraude asko dagoela uste dut, maila altuan baina.

# ANTIA

**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*


Matxiategi ☎ 76 15 09



# ETXEBERRIA

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65




# GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

# OILAGORRA TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA





## Ezberdinen gatazka

Gehiengoarengandik ezberdinak izatea latza izan dai-teke, batez ere gorputz zentzumen bat faltan dagoenean. Hau gertatzen zaio gure inguruko jende kopuru bati. Honen adibide nabarmenenetarikoa bat pertsona gorrak, hau da, entzumen zentzua falta dutenak direlarik. Zentzumena faltan izateak ez ditu errazten giza harremanak, eta honi erantsi ezkerro hauek gizartean multzo txikia osatzen du-tela..., hortik "bazterturik" eta bazterkuntzatik irten ezinda izatera beharturik aurki daitezke errez.

Zoritxarrez gure gizartea, gizarte berdinzalea da. Ez du-tu gogoko gehiengoaren izakeratik zerbait irtetzen direnak, nahiz eta noizbait "dibertsitatea" aberastasuna dela esan, ez dugu honela sentitzen. Beti berdindu nahian gabiltza, eredu mitiko batzuk jarritz, batasunaren nahian. Politikan batasuna nahi dugu, pentsakeran, hizkuntzan, jantzetan, dibertsiotan, orrazteko eran, e.a. Ez da onartzen positiboki gehiengoak jarritako "eredu" horietatik ateratzea. Benetan bide estua gaurkoa ere. Gutxiagotuek laguntza bereziak behar dituzte, baina benetan lagungarria izango litzateke-ena, zera da: Gizarte "normalak", pertsona ezberdinak ere onartzea, euren izakera errespetatuz, euren kultura eza-gutuz, elkarrenganako zubiak eraikiz, bere behar bereziak kontutan hartuz, eta batez ere gehiengoaren edo "norma-laren" karikatura izatera behartu gabe.

Arans-Girekin 25 urte ospatzen ari gara. Elkarrekin bil-duta, urtean zehar, zer ikusiak zer ikasia ere ekarri du. Gi-zarte osoak du ikasgai on bat Gorren Gizarteak denoi era-kutsi digunaz. Entzumena duenak, entzun dezala!

**Iñaki MADINABEITIA**



## Ai sexua!

Badago gai bat guztion ahotan dagoena maiz: sexua. Lagunarteko gai arrunta izan da beti sexua; baina kuadrila multzotik kanpoko kontua ere bada. Eta kuadrilaz kanpoko kontua ere badela diot, adin, sexu, heziketa edota beste faktore ezberdin batzuk lotzen dituen jende multzoak osa-tuz gero, gai hau mahairatzen den lehenengoetarikoa dela-ko. Arestian aipatutako jende ezberdinez osatutako multzo horietakoak aise aurki daitezke euskaltegietan. Noski dituz-tela amankomunean hainbat gauza, eta agerian dagoena euskara ikasi nahia da.

Baina horretaz gain adin oso ezberdinetako jendea bil-tzen da talde hauetan eta baita heziketa ezberdinekoa ere. Hala ere, lagunartean sexuari buruz hitzegin daitekeen na-turaltasun berarekin hitzegiten da talde hauetan ere.

Sexuaz hitzegitea oso gustokoa dugu gehienok, eta euskaltegiko adibidea aipatu badut, bertan oso nabaria delako da. Beti dago norbait esandako edozeri punta ater-atzen diona hizketaldia sexurantz bideratzeko.

Frogatu duenak bere esperientziak kontatzen ditu, eta dastatu ez duenak bere ezjakintasuna asetu nahian entzun eta galderak egiten ditu. Agian berau praktikatu baino na-hiago dugu berataz hitzegin; beti irriparrarekin aurpegian, hori bai.

**Monika BELASTEGI**

## Pazkuak 96 •

### • PALMA DE MALLORCA •

Maiatzaren 19tik 26ra - Maiatzaren 26tik ekainaren 2ra

	7 gau	14 gau
Balmes Hotela **	29.900 pzta.	51.900 pzta.
Samos Hotela ***	31.900 pzta.	53.900 pzta.
Sol Magalluf Hotela ***	44.600 pzta.	68.900 pzta.

### • LANDAK • Maiatzaren 24tik 28ra

	LE HUCHET		PORT D'ALBRET
4 pertsona	24.350 pzta.	2/3 pertsona	21.800 pzta.
5 pertsona	26.100 pzta.	4 pertsona	27.600 pzta.
		5 pertsona	34.300 pzta.

## VIAJES EROSKI

BIDAIAK

Maixu Arano Pasealekua, 8 ARRASATE

### • SALOU • Maiatzaren 24tik 28ra

	Autobus barik	Autobusarekin
San Diego Hotela ***	9.180 pzta.	15.380 pzta.
Voramari Apartahotela	9.760 pzta.	15.965 pzta.
Cala Font Hotela ***	9.760 pzta.	15.965 pzta.
Europa Park Hotela ***	10.800 pzta.	17.000 pzta.
California Hotela ***	10.800 pzta.	17.000 pzta.
Olimpus Hotela ***	11.500 pzta.	17.700 pzta.
Salou Princes Hotela ***	11.750 pzta.	17.950 pzta.

**Erreserbak egiteko deitu 79 99 22 telefonora.  
ARRATSALDETAN BERGARAKO  
CONSUMEN ERE IZANGO GAITUZU.**



■ **1964an jaiotakoen bazkaria**

Orain dela bi aste 1964an jaiotako bergarrek beren **anaiarteko eguna** ospatu zuten. Eskola garaietatik elkartzen ziren lehen aldia zen (56 lagun bildu ziren) eta primeran pasa zuten elkarrekin. Eguerdiko poteoaren ondoren, argazkia atera eta Osintxuko

Txuringo jatetxean bazkaria izan zuten. Bazkalostean, berriz, gazte denborako anekdotak eta gaur egungo gorabehereri buruz hitz egiteko aukera izan zuten... Sobran geratu zen dirua maiatzaren 11ko loterian jokatuko dute, **69.464** zenbakiarekin. Bestalde, datorren urtean berriz biltzekotan geratu ziren eta, beraz, gonbidapena luzatuta dago...



■ **Eskulangintzatik juergara**

**Jarduneko eskulan ikastaroan** parte hartzen ari diren emakumeek afaria egin zuten pasa den apirilaren 26an **Pertxa** elkartearen. Guztira 25 lagun bildu ziren, tartean **Dorleta Mendibil** ikastaroko irakaslea ere bai. Ikastaroa ia amaituan dagoenez, emakumeek ikastaroko giro bikaina indartzeko elkarrekin primerako afaria egitea erabaki zuten. Esan eta egin... Hurrengora arte!!

**MAHER**

**Biltegiak L.E.**

**Oihal etxea**

**Bidekurutzeta, 29**

**☎ 76 22 90 - 76 26 75**

**Usoa Pub**



**☎ 76 38 57**

**Irala, 1**

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa. Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



**Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30**

■ **Primerako dantzariak**

Janire Urbieta bergararrak eta **Xabier Azurmendi** zegamarrak (argazkian) osatutako bikotea ETBk asteazkenean Rufino Arrola eta Primi Erostarberi eskainitako omenaldian aritu zen dantzan. Bestalde, Eibarren jokotutako Dantza Askatuko Txapelketan lehen saria eskuratu zuten igandean. Era berean, **Xabier Egidazu** eta **Irantzu Lizarralde** bigarren postuan sailkatu ziren eta hirugarren **Larrañaga** lehengusuak. 13 bikote aritu ziren lehiari Untzaga plazan jokotutako txapelketan eta bergararrek sasoi onean daudela erakutsi zuten... Zorionak!!



**Zertan dihardute ba?**



**Jone Larrañagak**

(28 urte, antzuolarra), Euskal Filologian lizentziatua eta Berrigarako kazetaria denak, eskuratu du Antzuolako Udalak bertako euskararen azterketa linguistikoa egiteko kaleratu duen "Antzuola herria ikerketa beka". Jonek 12 hilabeteko epea izango du ikerketa linguistikoa egiteko eta, besteak beste, Antzuolako ahozko euskara, aditza, deklinabidea, fonetika eta esaera zaharrak jaso beharko ditu. Beka eskuratzeko lehiaketara 5 eskakizun aurkeztu ziren eta epai-mahaiak Jone Larrañagarena aukeratu zuen.

■ **Irukurutzetako erromerian**

Jende dexente bildu zen igandean **Kapirixok** eta Soralezeko **Aitton-Txaboletako** elkarteak antolatutako Irukurutzetako erromerian. Eguraldia ere bikaina izan zen eta bildutakoek primeran pasa zuten egunean zehar antolatutako



ekitaldietan. Ohiturari jarraituz **Pago bedeinkatua** meza izan zen eta, erromeria baten ordean, bi izan ziren, bata bazkalaurretik eta arratsaldean bestea. Bertsolari eta trikitilariak ere izan ziren Irukurutzetan eta horrez gain inguruko trikuharrien berrizte lanak ezagutzeko aukera izan zuten gerturatutakoek. Orain 80 bat urte azkenenengoz egin zen erromeria berreskuratzeko asmoa du Kapirixok eta igandeko arrakasta ikusirik, badirudi ideiak harrera ona izan duela. Interesatuok datorren urteko maiatzeko lehen domekan ezinbesteko zita daukazue...

**ZUBIAURRE**  
**aroztegia**

Sarrerako eta barrurako ateak, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73



*Pepelu*

**Ilepaindegia**

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
**BERGARA**

# Sabas Igartua

**Orain dela 12 urtetik hona San Martin eskolako mantenimentu arduradun dabil Sabas; aurretik arotza izan zen. Pelotazale amorratu izan baino lehen futboleant ibili zen: Bergara, Eibar, Oñati, Mirandes eta Mondra taldeetan.**

**- Zein da gutxien gustatzen zaizun lana?**

- Pertsianak konpontzea, oso handiak dira eta.

**- Hurrei adarra jotzea erraza?**

- Gustatzen zait, baina eurak ere saiatzen dira; halere, ez didate irabazten.

**- Gaurko umeak eta lehengoak desberdinak dira?**

- Oraingoak argiagoak dira eta nahi dutena egiten ohituta daude.

**- Umeengan zerk harritzen zaitu?**

- Gezurak esanaz jaiotzen dira. Zelako gezurak esaten dituzten!

**- Txikitako bihurrikeria bat?**

- Zinera bizikletaz joan zen bati erroberako mariposak soltatu genizkion. Muturreko ederra...

**- Zerk jartzen zaitu sutan?**

- Pazientzia handikoa naiz.

**- Pelota ala futbola?**

- Pelota eta Retegi.

**- J. Etxaniz ala J. M. Zezeaga?**



*"Gaurko umeak gezurak esanaz jaiotzen dira. Futbola ikustera joatea ez zait gustatzen, jendea desahogatzera joaten da eta. Hika pertsona nagusiekin ez, beste guztiekin hitzegiten dut"*

- Etxaniz. Pelotari argiak indartsuak baino nahiago ditut.

**- Lehen futboleant ona ei zinen.**

- Berrigarant behin hala esan nuen eta lagunek adarra jo zidaten, baina bai, hala da, ona nintzen.

**- Zer du Athleticcek Realak ez duena?**

- Jokalariak hemengoak dituela.

**- Athleticcek eta Alavesak promozioan elkarrekin jokatuko dute?**

- Ez, Athleticcek promozioan ez du jokatuko, beste maila bat dauka.

**- Partiduetara joaten zara?**

- Futboleko ikuslea ez zait gustatzen: jendeak insultatu egiten du. Asko desahogatzera joaten da.

**- Athleticen entrenatzaile izango zinateke?**

- Jokalari nahiago, gaztetasuna esan nahi du eta. Gainera horrelako talde batean jokatzea!

**- Zenbatean dago dolarra?**

- Ez dakit, ez zait inporta.

**- Paradisua non dago?**

- Osasunarekin eta diruarekin leku askotan.

**- Bergarari zein izen jarriko zenioke?**

- Ez nioke aldatuko.

**- Kantu bat hasiko?**

- Boga boga, marinela. Marinela!

**- Zein eratako txisteez ez dizute graziarik egiten?**

- Beste batzuekin sartzen direnek.

**- Kilikilirik baduzu?**

- Nork egiten didan, kilikili errazekoa naiz.



Bizkaia Etorbidea, 1  
etxabea




Tfnoa: 77 14 24

**POL-POL**

Taberna

☎ 76 07 78



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai. 80 m2 eta 6 m2ko terraza. ☎ 76 03 75.

**Pisua** salgai Osintxun. Erdi amueblatuta, argitsua. ☎ 76 17 27/55 98 (gauze).

**Pisua** salgai. 90 m2 eta terraza. ☎ 76 31 57 (gauze).

**Pisua** salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/56 07.

**Pisua** salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

**Pisua** salgai Bolun. 100 m2. ☎ 76 22 72.

**Pisua** salgai Maduran. ☎ 76 45 03.

**Pisua** salgai San Antonion. ☎ 76 57 35.

Berriztutako **ganbara** San Pedron salgai. ☎ 76 24 05.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 25 31 (Alex).

**Pisua** salgai Koldo Eleizaiden. ☎ 76 44 84.

**Garajea** salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 47 71.

**Garajea** salgai Santa Marinan. ☎ 76 29 36.

**DENETARIK**

**Kanpin denda** familiarra salgai. ☎ 76 37 96.

**Denda-remolkea** salgai. ☎ 76 37 82.

**Nikon** 70210 "D" objetiboa salgai. B + W filtroa, parasol originala. Erabili gabe. ☎ 76 52 31 (Jesus, gauze).

**Golf**-eko Wilson makilak salgai. ☎ 76 10 93/32 15 89.

**Imar** karro denda salgai. ☎ 76 59 56 (gauze).

**Boxer** txakurrak saltzen ditut. Otsailaren 5ean jaiotakoak. ☎ 76 06 84.

**Trialsineko** Monty bizikleta salgai. Egoera onean. ☎ 76 56 13.

**Opel Kadet** GSI kotxea (SS-AF) salgai. 16 balbula. ☎ 76 24 81.

**Segamegadrive** konsola salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

**Nissan** Vanette (SS-AK) salgai. ☎ 21 18 55.

**Mendiko bizikleta** salgai. ☎ 76 51 55.

**Lancia** Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

**Donostian** pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 47 26 62 (Irene).

**Karakol** eskilara salgai. ☎ 76 14 84.

**Mastin** txakurkumea salgai. ☎ 76 54 26.

**Casio** poltsikoko telebista salgai. ☎ 76 56 13 (Markel).

**Olivetti** Copia 7005 fotokopiadora salgai. 55.000 pta.. ☎ 76 51 23 (gauze).

**LANA**

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Errenta** aitorpenak egiten ditut. ☎ 76 34 95 (Ander).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 04 65.

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

**Ileapaindegian** diplomadun neska batek lan egingo luke. ☎ 79 97 81.

**Euskara** klaseak hartuko nituzke, 3retatik 5etara. ☎ 76 58 73.

**Neska** batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 96 (Mertxe).


**BBB**, UBI eta unibertsitate mailako klase partikularrak. ☎ 76 35 37.

**Haurrak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia. ☎ 76 61 17.

**Ordenadorez** pasatzen dira lanak. ☎ 76 27 59.

**Zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 11 11.

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11-73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

*Cristina Garcíandia Mujika***DERMATOLOGIA****BENEREOLOGIA****MEDIKUNTZA KIRURJIKOA**

San Martín Osasundegia  
Ramón María Lili, 2 (Ate nagusia)  
Telefonoa: 76 59 39

# BONOFOTOA



## Esther Martin

**Esther Martin**entzat izan da aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako eta ondorengo zozketan bere txartela irten delako. Argazkietan agertzen ziren buzoiak, bata Errepublika garaikoa eta bestea gaur egungoa, Bergarako zein kaletan dauden galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Zubieta kalean eta Burdiñaten** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Esther Martini** eman dizkiogu. Zorionak!!

## ***Zein da baserri honen izena?***

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara



## T XINPARTAK

### Igerilariak bikain

Joan zen astebukaeran Tarbesen (Frantzia) jokaturako igeri txapelketan Eneritz Muguruzak zilarrezko domina eskuratu zuen 100 metro tximeletan eta brontzezkoa 200 metro libreetan. Amaia Lazpiurrek, berriz, brontzezkoa lortu zuen 100 metro tximeletan.

### Mendi irteera

Alpino Gorlak eta Pol-Polek antolatuta, Altube-Orozko mendi irteera izango dute nagusiek datorren igandean egun guztirako. Irteera frontoian goizeko 7:30etarako iragarri da eta izena Pol-Polen eman behar da.

### Pelota

Villa de Bergara torneoan, joan zen asteartean, Berraondo eta Almandozek 22 eta 17 irabazi zieten Haritz eta Galarzari. Irabazleek datorren asteartean arratsaldeko 7:30etan Apezetxea eta De Luzen aurka jokatuko dute final erdia. Beste final erdian, Muruamendiaraz eta Raik, Artola eta Zearraren aurka jokatuko dute.

### Herri Olinpiadak

Herri Olinpiadak antolatzeko, dei egiten zaie herriko kuadrilei datorren ostegunean arratsaldeko 7etan Kultur Etxean egingo den bilerara.

# Potzu Ta Zapapaburuak taldearen nesken futbito txapelketa

Igandean jokatu zen Nesken Futbito Txapelketaren finala Labegaraieta kiroldegian. Pronostikoak bete egin ziren, Potzu Ta Zapaburuak taldeak 4 eta 0 irabazi baitzion Almondigak taldeari eta horrela txapelketa partidurik galdu barik bukatu dute txapelketa.

Halere, emaitzak ez du argi uzten partiduan zehar gertatutakoa, lehen zatian Almondigakekoek izan baitzituzten gol aukerarik onenak, baina futbolearen normalean gertatzen den moduan barkatzen duenak galdu egiten du eta hori gertatu zen igandean. 3. eta 4. postuak erabakitzekeo partiduan, Blue Stars taldeak asko kostata 4 eta 2 irabazi zion Guk taldeari. Blue Starsekoak txapelketako gazteenak izanik, hasiera kaskar samarra izan zu-



Joan zen igandean amaitu zen Nesken futbito txapelketa.

ten, baina azkenean neurria hartu ondoren txapelketa polita egin dute. Gukekoek ere meritu handia izan dute, txapelketan zehar ia partiduguztiak jokalaririk gutxiagorekin jokatu dutelako eta, hala eta guztiz ere, 4. izatera heldu direlako.

Finalean, Labegaraietako kiroldegia jendez

bete egin zen eta antolatzailleek 4 talde onenien emandako sariez gain, golegile onenaren saria Nekane Gabilondori eman zioten. Kiroltasunaren saria, berriz, Eider Ugalderei, Erregulartasunarena Ane Olabideri eta atezainik onenarena, azkenik, Eider Ruizek jaso zuen.

### Eskubaloitalde nagusiak mailari eutsi

BKEko 2. maila nazionaleko taldea datorren urtean ez da mailaz jeitsiko, Donibane taldea Lehen mailara igo baita. Joan zen asteburuan pasaitarrak Bergaran izan ziren kopako txapelketaren partidurik bat jokatzeko eta bergararrek eskerrak eman zizkieten emandako laguntzarengatik. Horretaz gain, ohorezko



pasiloa egin zieten eta BERRIGARAKO taldeetako jokalariek elkarrekin argazkia atera zuten. Emaitzari dagokionez, Donibane argi erakutsi zuen talde hobe delako eta 22 eta 11 irabazi zion jubentzen eta 2. territorial mailako jokalariez osatutako BKeri.



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Beraun

Ohorezko mailako jubenilak.  
Larunbata, 17:00. Agorrosin.

## ◆ Bergara-Real Sociedad

Ohorezko mailako infantilak.  
Igandea, 10:00. Ipintza.

## ◆ Bergara-Eibartarra

Emakumezkoak.  
Igandea, 11:30. Ipintza.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Almen

Kadete mutilak.  
Larunbata, 16:30.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Ordizia

Senior mutilak.  
Larunbata, 18:00.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Ereintza

Jubenil neskak.  
Larunbata, 19:15.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Urola

Kadete neskak.  
Igandea, 12:15.  
Labegarieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Aloña Mendi

Junior neskak.  
Larunbata, 12:15.  
Labegarieta kiroldegia.

## PALA TXAPELKETA

Pala Txapelketako partiduak.  
Larunbata, 14:00.  
Osintxuko frontoia.

## FRONTENISA

Frontenis partiduak.  
Larunbata, 09:00.  
Zabalotegiko frontoia.

# Nekane Gabilondo

## Futbitoko golegile nagusia

**Joan zen asteburuan amaitu zen nesken futbito txapelketa eta 12 partidu jokatu ondoren 17 golekina Potzu Ta Zapaburuak taldeko Nekane Gabilondo izan da golegilerik onena. Pitxitxiaren sariaz gain, bere taldearekin txapelketa irabazi du eta pozik agertu da lortutakoarekin.**

**- Orain arte futbitoan jokatu izan al duzu?**

- Ez, lagunartean edo anaiarekin jokatu izan dut. Bestela Herri Olinpiadetan antolatutako txapelketetan ere jokatu izan dut.

**- Futbola ala futbitoa?**

- Futbitoa, futboleant inoiz ez dut jokatu eta.

**- Txapelketa honetarako zein zen zuen hasierako asmoa?**

- Gu ondo pasatzeko eta asteburuan kirol pisika bat egiteko apuntatu ginen. Ez nuen uste txapelketa irabaziko genuenik.

**- Finalean 4 eta 0 nagusitu arren, ez zen errazegia izan ez?**

- Egia da, gainera finalean sekulako "presioa" genuen ordura arte partidu guztiak irabazi genituelako eta finala irabaztera derrigortuak geunden eta hori jokatzekoan igarri genuen. Beste taldekoek lasaiago jokatu zuten eta ondo jokatu zuten.

**- Ikusle asko igandeko finalean?**

- Jende asko zegoen harmailetan eta batez ere neskak. Txapelketan ze-

har Miguel Altunan jokatu dugu eta orain kiroldegia jendez beteta ikusteak ilusioa eman zigun.

**- Modan al dago neskak futbitoan aritzea?**

- Ez, orain arte mutilen kirola izan da, baina emakumeek jokatzeko aukera eman digutenean futbola gustatzen zaionak jokatu du. Futbola ez da moda bat eta uste dut nesken artean indartu egin dela.

**- Beste txapelketa bat antolatzeko asmoa omen duzue...**

- Bai, ekainean eta uztailean jokatu da eta Jardun eta Lagunak elkarrean artean antolatuko dugu. Apuntatu nahi duena Gartzela Zaharretik

pasa dadila edo 76 36 61 telefonora deitu dezala.

**- Zerbait hobetu al daiteke txapelketan?**

- Bai, Berrigarak zabalago jarraitu beharko luke nesken futbitoa. Aste batzutan ez da ezer agertu, mutilen txapelketari astero orri oso bat eman zaionean. Ulertzen dut mutilen txapelketan talde gehiago daudela eta sakonago informatu behar dela, baina kontsiderazio haundiagoa izatea ondo gongo litzateke.

**- Datorren txapelketarako berriz irabazle?**

- Saiatuko gara, ezin da esan nor izango den txapeladuna, baina garrantzitsuena jokatzeko da.



"Kiroldegia jendez gainezka ikusteak ilusioa eman zigun".

**"Futbola ez da moda bat eta uste dut nesken artean indartzen doala"**



## Institutuko oroitzapenak

**G**arai batean institutuan ikasi zutenek, gelakoen argazkia izango dute. Etxean ez bada, institutuan bertan ziur egongo dela, kurtsio hasieran gelaz-gela argazkiak ateratzen ibiltzen baitzen Imanol Iriagarai. Aste honetan erakusten dizuegun hau 1980-81 ikasturteko COU A gelakoak dira. Gaur egun 33 urte inguru izango dute.

Zapatu honetan afaria izango dute Azpeitxi jatetxean eta 17 urteko neska-mutil koskorak zireneko kontuak izango dituzte ahoz-ahoz. "Harek jarri zidan penkoa!!", "Hi orduan argalago hengoan"...

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Goiko ilaran:** Maria Puy Garcia, Mengual, Alicia Garcia, Candida Soto, Mila Iglesias, Ane Moñux, Rosa Mari Linzoain, Maria Jose Lonbide, Marian Lizarralde eta Arantzazu Gallastegi.

**Bigarren ilaran:** Tomas Tubilleja, Mirari Alberdi, Elisabet Gallastegi, Jesus Mari Al-faro, Arrese-Igor, Ana Colas, Fernando Migura, Martin Garitano, Elena Odriozola, Fran Martinez, Tere Garamendi eta Josu Zabaleta.

**Eserita:** Ezezaguna, Goyo Urbina, Amaia Larrañaga Igartua eta Iosu Akizu.

*Argazkia: Marian Lizarralde eta Tere Garamendi*

**ZUBIETA**  
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**umelaga**  
JATETXEA

IGANDETAN  
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!



Aranerrika 9, beheka ☎ 76 51 20


# BOLU

## GIMNASIOA

**STEP 2.500**



**BIZIKLETA**



**CLIMBER  
3.000**




**ECLIPSE  
SPORT**



**RUNNER 2.000**



**ARRAUNA**



**BOLU GIMNASIOA**

**gela berri bat egokitu dugu.**

**Merkatuko gimnasia makinarik berrienak.**

**Zatoz eta ezagutu itzazu gure instalazioak!!**

UNITED COLORS  
OF BENETTON.



Maialako Errabala, 13 • ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) • Tfnoa: 79 50 78 • ARRASATE